



ERAIKINAREN DATUAK

Izena eta aldaerak: Taula, Tabla, Taulaberri.

Auzoa, udalerria: Galtzaur., Astigarraga.

Dolarearen kokapena: Baserriaren eskuineko (hego-ekialdeko) eranskinean. Lehen solairuan toleara eta behean upelategia.

Jabea: Bittori Zapiain.

DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK

Kronologia: XX. mendekoa.

Iraunaldia: Badira 40 bat urte azkenekoz sagardoa bertan egin zutela.

Zenbait datu: Errenteriako Mendiola eta Donostiako Joxemari tabernatik etortzen ziren Taulara etxeko sagarrarekin egindako sagardo upelen bila, familiakoak baitziren.

Egungo erabilera: Erabat utzia dago.

Kontserbazio egoera: Txarra.

TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**Dolare-prentsa:**

Askaren erdian zutik jarritako burdinazko ardatz du, goiko erdia harizatua duela. Zati horretan muntatua du ardatzean gora eta behera mugitzen den burua, eskuz eraginda estutzen den mekanismoaz eta zurezko urkaz osatua. Tamaina handiko zurezko aska soliba edo azpi sunbilek eusten dute. Behe solairutik ikus daitezke azpi sunbila horiek. Baita ardatza azpitik eusten duen altzairuzko perfilaz indartutako egurra eta torlojuare ere.

Dolarearen osagarriak:

- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.
- Upelak, hondatuta.
- Harri eta mortairuz egindako patsazulo handi bat du, silo zilindriko baten modukoa.

Argazkiak: 17.01, 17.02, 17.03.

GAKO-HITZAK

Eskuzko trakzioa, zurezko aska, matxaka, Astigarraga.

OHARRAK

- Oso hondatuta dago. Eraikinaren teilatua behera etorri da. Patsazuloa egoera onean du.
- 9.000 litroko upela ere bazuten baina Zapiain sagardotegiko Rosariori saldu zioten.

GALDETEGIA

Informatzailea: Bittori Zapiain.

Datu bilketaren egilea: A.Agirresarobe, J.Tellabide.

Datu bilketa data: 2010eko apirilaren 19a